# DONAMARTIRIKO HERRIKO KONTSEILUKO BILDUMA
-
# COMPTE RENDU DE REUNION DU CONSEIL MUNICIPAL

**2009ko Otsailaren 27**-an ostiralarekin, arratseko 9etan, Donamartiriko herriko kontseilua bildu da, Pierre Haiçaguerre Auzapez Jaunak kudeaturik.

Le conseil municipal de Saint Martin d'Arbéroue s'est réuni le **vendredi 27 février 2009 à 21H** sous la présidence de Monsieur le maire, Pierre Haiçaguerre.

Hor zirenak : / Présents :

HAICAGUERRE Pierre, BETBEDER Christophe, BORDARAMPE Jean-Baptiste, CABROL-OSPITALETCHE Isabelle, GARAT René, ELISSALDE Nicolas , HAICAGUERRE Claire, IDIART Jean-Martin, LAMBURE Béatrice, SALLABERRY Laurent.

Barkatuak : / Excusés :

MIRANDE Jean-Baptiste (*poderea / procuration à M. BETBEDER Christophe*)

Bilkuraren hastapena :

Arratseko 21:15tan

Début de la séance :

21H15

SALLABERRY LAURENT bilkuraren idazkari izendatua da.

SALLABERRY LAURENT est désigné secrétaire de séance.

2008ko Abenduaren 9ko bilkurako bilduma aho batez onartua da.

Le maire et son conseil ont lu et approuvé à l'unanimité les actes de la réunion du 9 décembre 2008

**• Gai-ordena**

- Parke eoliko baten egitasmoa – anemometro-dorre baten plantatzeari buruzko erabakia
- ISTIL Jaunak egindako eskaera – lur zati baten trukaketa
- Oinezkoen ibilaldi tokiko plano berriaren azterketa
- Eskola – Karmeleren CAE kontratuaren bukatzea
- Beste gaiak

**• Ordre du jour**

- Décision sur l'implantation d'un mat de mesure pour le projet d'installation des éoliennes sur la commune
- Demande de Mr ISTIL d'une cession et d'échange de terrain
- Examen du plan local de randonnées
- Décision sur la suite du contrat CAE de Carmele (employée à l'école)
- Questions diverses

**• Parke eoliko baten egitasmoa – anemometro-dorre baten plantatzeari buruzko erabakia**

Parke eoliko baten plantatzeak paisaian sor ditzakeen ondorioak aztertu ondoren (egitasmoa daraman entrepresak igorri duen argazki-muntai bati esker), Herriko Kontseiluak anemometro-dorre baten plantatzearen alde agertzen da.

**• Décision sur l'implantation d'un mât de mesure pour le projet d'installation des éoliennes sur la commune**

Après avoir pris connaissance de l'impact visuel de l'implantation des éoliennes sur une photo montage, le conseil donne un avis favorable à l'installation du mât de mesure tout en se donnant le droit d'accepter ou de refuser la poursuite du projet si les mesures

Haizearen neurri eta datuak onak badira ere, Herriko Kontseiluak berriz deliberatuko du jakiteko ea egitasmoak segituko duen ala ez.

Egitasmoa bultzatzen duen Française d'éolienne entrepresari jakinarazia izanen zako, parke eoliko baten bisita beharrezkoa izanen dela edozoin erabakirik hartu aitzin.

Betbeder Christophe-k bere burua proposatzen du egitasmoaren segitzeko.

prises sont concluantes.

Il sera notamment spécifié à la société Française d'éolienne, porteuse du projet, la nécessité d'une visite d'un site existant afin de permettre de mesurer in situ les conséquences de l'implantation d'un parc éolien.

Betbeder Christophe s'est proposé comme référent de la municipalité pour le suivi du projet.

**• ISTIL Jaunak egindako eskaera : lur zati baten trukaketa**

Donapaleuko Auzitegi Administratiboak hartu zuen azken erabakiaren ondtik, Istil Jaunak ararteko bati dei egin dako, eskaera berri bat egiteko Herriko Kontseiluari.

Istil Jaunak galdegiten du bere etxearen gibelean dagoen lur zati (publiko) bat eta herriko bidearen zati bat trukatzea, bere etxeko pareta azkartzeko eta saneamendu sistema tokiz aldatzeko.

Herriko Kontseiluak erabakitzen du, azterketa pribatu bat galdegitea arartekoari (gastuak Istil Jaunaren gain) segurtatzeko obra horiek beharrezkoak direla. Azterketa hori egin ondotik, erabaki bat hartuko da.

**• Demande de Mr ISTIL d'une cession et d'échange de terrain**

Suite à la décision du Tribunal administratif de St Palais, M. Istil a fait appel à un médiateur pour transmettre à la municipalité une nouvelle demande.

La demande de Mr Istill consiste :

- à l'échange d'un bout de terrain en limite de sa propriété contre une partie de chemin communal passant derrière chez lui afin d'effectuer des travaux de consolidation de la face arrière de sa maison et de déplacer l'assainissement.

Le conseil suite à cette requête demande une expertise privée qui atteste la nécessité de ces travaux (au frais de Mr Istill). Suite aux conclusions de cette expertise, le conseil se réunira et prendra une décision.

**• Oinezkoen ibilaldi tokiko planoa**

Errobi-Aturri-Ursuia PCD-ak igorri dituen dokumentuak aurkeztuak dira.

Ibilaldi tokiko plano berriari buruzko erabakia ondoko bilkuran eztabaidatuko da, informazio eskasa dela eta.

**• Examen du plan local de randonnées**

Les documents transmis par le PCD Nive-Adour-Ursuia sont présentés.

La décision relative aux chemins de randonnées est repoussée à la prochaine réunion pour demander plus d'information.

**• Eskola : Karmeleren CAE kontratuaren bukatzea**

Karmeleren CAE kontratua martxoaren 9an bukatzen da.

Batetik, Herriko Kontseiluak proposatzen du Donoztiriko Herriko Kontseiluarekin harremanetan sartzea, ikusteko zer aterabide mota litekeen SIVU Ikas-Bide-ren bidez.

Bestetik, ao batez onartzen da Karmeleri proposatzea kontratu mugatu bat, ekaina arte, ikasturtea bukatzeko.

**• Décision sur la suite du contrat CAE de Carmele (employée à l'école)**

Le contrat CAE prend fin le 9 mars.

De ce fait le conseil propose de se mettre en contact avec la commune de Saint Esteben afin d'examiner les possibilités de traiter cette question au sein du SIVU Ikas Bide.

Dans l'intervalle, le conseil municipal décide de proposer à Karmele un contrat à durée déterminé jusqu'en juin pour finir l'année scolaire.

• **Beste gaiak**

- Herriko etxe berria : lehioak ixteko sistemari buruzko elkarrizketa.

- Trinketea : alokatzeko prezioak berriz eztabaidatuko dira ondoko biltzarrean.

Bilkura gauerditan bururatzen da

• **Sujets divers**

- Consultation sur le type de volet roulant à installer à la future mairie

- Tarification de la location du trinquet à confirmer à la prochaine séance.

La séance est levée à 00 H00